

8 urteko etengabeko hazkundearen ondoren, 2020an pandemiak % 47,4 murriztu du Euskal AEn ostalaritzako negozio-zifra


Beste janari-zerbitzuek –cateringa, ekitaldietarako otorduak...– eta beste ostatu-zerbitzuek –kanpinak, apartamentuak, pentsioak...– eutsi diote fakturazioaren beheraldiari 2019ko zifren azpitik % 30 inguruan.

Ostalaritza sektoreak ostatu-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak eta janari- eta edari-zerbitzuak eskaintzen dituztenak biltzen ditu, eta 2020an 2.371 milioi euro fakturatu zituen, 2019an baino 2.139 milioi gutxiago, urte hartan 4.510 milioi fakturatu baitzituen, eta hori Euskal AEko ia erdia da, % 47,4, hain zuzen ere.

Ostalaritza sektoreak 2020an 60.519 pertsona izan zituen lanean 13.523 establezimendutan, eta enpleguak doikuntza % 5,6 murriztu zuen arren eta establezimendu-kopuruak zertxobait behera egin zuen arren (-% 1,4), gainerako aldagai ekonomiko nagusiek ere fakturazioaren antzeko jaitsierak edo handiagoak izan dituzte.


Horrela, langile-kostuek % 43 egin zuten behera eta balio erantsi gordinak faktore-kostuetan –sortutako aberastasuna adierazten du, eta ustiapen-jardueretatik datozen diru-sarrera gordinei dagokie, ustiapeneko dirulaguntzen eta zeharkako zergen ondoriozko doikuntza egin ondoren– % 52. Hala ere, ekitaldiko emaitza da adierazle okerreana 2020an; izan ere, negatiboan amaitu da (74,3 miloi euro), 2019ekoa baino -% 141,2 gutxiago izanik, kontuan hartuta aurreko urteetan larregi gaitzen zituela 180 milioiak positiboan. Moderatuagoa da lan egindako orduen kopuruan izandako jaitsira, -% 28,8.

Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko negozio-zifraren banaketa, jarduera-taldean arabera (2020)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Euskal AEko Ostalaritza-sektoreko langile okupatuen banaketa, jarduera-taldean arabera (2020)



Ostalaritza barruan, *janariak eta edariak* atala –*jatetxeak, beste janari-zerbitzu batzuk eta edari-establezimenduak* barne hartzen ditu– da nagusi: establezimenduen % 89,9, enpleguen % 89,7 eta fakturazioaren antzeko ehunekoa, % 88,7, hartzen ditu.

2020an, negozio-zifrak mila eta zazpiehun milioitan egin zuen atzera eta bi mila ehun eta lau milioitan geratu zen, eta hori % 45,1eko murrizketa da. Era berean, 2019arekin alderatuta, enpleguak % 4,6 egin zuen behera eta bi mila eta seiehun enplegu galdu ziren, eta guztira 54.256 pertsona aritu ziren lanean atal honetan. % 26,9 gutxiago izan ziren lan egindako orduak.

Agertokia negatiboa izan arren, *janariak eta edariak* atalak ekitaldia amaitzean 4,4 milioi euroko emaitza positiboa izan zuen, hori bai, aurreko ekitaldiko emaitza baino % 96,3 baxuagoa.

Emaitzak jarduera-maila berezituagoan aztertuz gero, eta *janariak eta edariak* atal honetan, *jatetxeena* da garrantzi handiena duen azpisektorea. Ataleko fakturazio osoaren % 51,5 da eta enpleguaren % 45,4. Azken urtean, negozio-zifrak % 43,9ko aldaketa negatiboa izan du, eta enpleguak % 4,3koa.

Edari-establezimenduen azpisektorean ere negatiboa izan da bilakaera fakturazioan (-% 50,5) eta enpleguan (-% 4,0), eta azpisektore osoko lanpostuen % 36,1 eta negozio-zifraren % 35,1 barne hartu zituen.

Azkenik, *beste janari-zerbitzu batzuek*, horien artean *cateringak*, % 6,3 egin zuten behera okupatutako langileen kopuruan, baina aurreko bi taldeek baino gutxiago negozio-zifran, - % 31,2, hain zuzen ere, eta ostalaritzaren sektore osoan fakturazioan behera gutxien egin duena da. *Janariak eta edariak* ataleko enpleguaren % 18,5 eta fakturazioaren % 13,4 da.

Ostatu-zerbitzuen atala *hotelen* eta *beste ostatu batzuen* azpisektoreek osatzen dute, eta janarien eta edarien atala baino gehiago zigortu zuten Covid-19aren pandemiaren ondorioek.

2020an 267 milioi euro baino zertxobait gehiago fakturatu zituen, baina 2019an baino 411 milioi gutxiago dira, hau da, % 60,6 gutxiago.

Enplegua % 13,4 uzkuritu zen, nahiz eta establezimendu-kopuruari eutsi egin zaion edo zertxobait gora egin duen (% 1,6), batez ere hotelak ez diren ostatueta (kanpinak, apartamentuak, etab.), azken horien zifra ez baita aldatu.

Euskal AEko ostalaritza-sektoreko aldagai nagusiak, jarduera-taldearen arabera (mila euro). 2020

	Establezimenduak		Landun-kopurua		Negozio kopurua		Ekitaldiaren emaitza	
	Balioa	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	Urteko aldakuntza (%)	Balioa	Urteko aldakuntza (%)
OSTALARITZA	13.523	-1,4	60.519	-5,6	2.370.900	-47,4	-74.255	-141,2
Ostatu-zerbitzuak	1.368	1,6	6.263	-13,4	267.346	-60,6	-78.623	-226,2
Hotelak	630	0,0	4.682	-16,7	195.582	-65,9	-75.270	-249,1
Beste ostatuak	738	2,9	1.581	-1,9	71.764	-31,9	-3.353	-128,4
Janari eta edarien zerbitzuak	12.155	-1,7	54.256	-4,6	2.103.554	-45,1	4.368	-96,3
Jatetxeak	3.960	0,5	24.654	-4,3	1.082.420	-43,9	-45.672	-230,0
Beste jan-zerbitzuak	274	0,4	10.012	-6,3	282.882	-31,2	-9.507	-160,7
Edaritegiak	7.921	-2,8	19.590	-4,0	738.252	-50,5	59.547	-11,4

Data 2022ko Ekainaren 8a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

2020an salmentek izandako beherakada handiaren ondorioz eta gainerako diru-sarreraren eta gastuen kontu-sailek ere neurri beretsuan egin dutenez behera, *ostatu-zerbitzuen* ekitaldiko azken emaitza negatiboa izan da 78,6 milioi euroan, eta 2019ko ekitaldian, aldiz, 62 milioiko superabita izan zuen.

Ostatu-zerbitzuen atal hau *hotelek* eta *beste ostatu batzuen* azpisektoreek osatzen dute, eta lehenengoa da pisurik handiena duena: 2020an enpleguaren % 74,8 eta fakturazioaren % 73,2.

Gainerako multzoetan bezala, kasu honetan ere bietan negatiboak dira enpleguaren eta fakturazioaren bilakaerari buruzko zifrak 2019arekin alderatuta. Baina *beste ostatu batzuen* azpisektorean enpleguan doikuntza -% 1,9koa den bitartean eta salmentena -% 31,9koa, *hotelen* kasuan enpleguak % 16,7 egin zuen behera eta fakturazioak % 65,9; hau da, *hotelek* 2019an fakturaturutakoaren heren bat fakturatu zuten.

Adierazi behar da bai *janarien eta edarien* atalean bai *ostatu-zerbitzuen* atalean, hain tradizionalak ez diren sektoreetako salmentak direla kalte gutxien izan dutenak, hau da, *beste ostatu batzuk* (kanpinak, apartamentuak...) eta *beste janari-zerbitzu batzuk* (cateringak). *Hotelen* salmentek % 65,9 egin dute atzera, *jatetxeen* -% 43,9 eta *edari-establezimenduen* -% 50,5, eta *beste ostatu batzuen* eta *beste janari-zerbitzu batzuen*, bi kasuetan, % 30 inguru.

Araba enpleguan eta salmentetan eta Gipuzkoa ekitaldiko emaitzan, lurralde kaltetuenak

Lurraldez lurralde, hiru lurraldeek bilakaera negatiboa izan zuten fakturazioan eta enpleguan 2020an. Arabako ostalaritza izan da kaltetuen, enplegua % 6,8 jaitsi baita eta salmentak % 49,4. Gipuzkoaren kasuan salmentek % 48,8 egin zuten atzera eta enpleguak % 5. Ia

beherakada bera izan da enpleguan Bizkaian, -% 5,6koa, eta fakturazioa zertxobait gutxiago jaitsi da, -% 45,8.

Ekitaldiko azken emaitza defizitarioa da hiru lurraldeetan, eta zifrak daude Arabako ia hiru milioi euroen eta Gipuzkoako hogeita hemeretzi milioien artean.

Euskal AEko ostalaritza-sektoreko aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera (mila euro). 2020

	Euskal AE	Gehikuntza % 2010-2019	Araba/Álava	Gehikuntza % 2010-2019	Bizkaia	Gehikuntza % 2010-2019	Gipuzkoa	Gehikuntza % 2010-2019
Establezimenduak NU	13.523	-1,4	1.961	-1,3	7.144	-1,4	4.418	-1,4
Landunkopurua NU	60.519	-5,6	8.650	-6,8	30.214	-5,6	21.655	-5,0
Negozio kopurua	2.370.900	-47,4	338.476	-49,4	1.168.716	-45,8	863.708	-48,8
Ekitaldiaren emaitza	-74.255	-141,2	-2.888	-114,1	-31.729	-139,8	-39.638	-149,5

Data 2022ko Ekainaren 8a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen inkesta

Bizkaian biltzen da Autonomia Erkidegoko ostalaritzaren erdia, hau da, establezimenduen % 52,8 eta enpleguaren % 49,9. Gipuzkoako ostalaritzak establezimenduen % 32,7 hartzen ditu eta enpleguaren % 35,8, eta Arabaren pisua, beraz, enpleguaren % 14,3ra eta lokalen % 14,5era mugatzen da.

Hala ere, lurralde bakoitzeko jarduera ezberdinen barneko banaketak alde erlatibo adierazgarri batzuk jartzen ditu agerian. Horrela, Gipuzkoan *jatetxe* proportzio handiagoa dago nabarmen, lurraldeko establezimendu guztien % 35,9 baitira, eta sektoreko enpleguaren % 45,5 biltzen dute. Araban, aldiz, establezimenduen % 28,7 eta ostalaritzako enpleguaren % 40,6 biltzen ditu eta Bizkaian establezimenduen % 25,3 eta enpleguaren % 37,4; kasu guztietan lurralde bakoitzeko ostalaritza osoari dagokionez.

Lurraldeen artean aldeak daude *hotelen* atalean ere. Gipuzkoako ostalaritza-establezimendu guztien % 7,2 jarduera horretan aritzen da, eta beste bi lurraldeetan proportzioa % 3,4ra jaisten da Bizkaiaren kasuan eta % 3,6ra Arabaren kasuan. Datu horiek enplegura eramanez gero, ikusten dugu Gipuzkoan sektoreko langileen % 9,9 horretan ari dela, Bizkaian % 6,5 eta Araban % 6,4.

Hala eta guztiz ere, hiru lurraldeetan, edari-establezimenduen azpisektorea da ugariena establezimendu-kopuruari dagokionez, oso intentsitate ezberdinekin bada ere: % 65,8 Bizkaian, % 58,1 Araban eta % 47,1 Gipuzkoan. Bizkaian ostalaritzan lanean ari diren pertsona guztien % 53,4k edari-establezimenduetan egiten du lan, eta Araban % 35ek baino ez eta Gipuzkoaren kasuan % 28k.

Azpisektoreen bilakaerari dagokionez lurraldeen arteko gorabeherak antzekoak diren arren, hain zuzen ere *edari-establezimenduen* azpisektorearen bilakaeran daude alderik handienak. Horrela, Bizkaian negozio-zifrak % 48,5 egin du behera era horretako establezimenduetan, eta Gipuzkoan zifra hori % 51,7ra iristen da eta Arabaren kasuan % 56,2ra.

Jatetxei dagokionez, bolumenean bigarren azpisektore garrantzitsuena baita, negozio-zifra % 45 eta % 45,6 uzurtu da Araban eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, eta Bizkaian % 41,9.

Mikroenpresek (1-9 langile) hobeto aurre egin diete pandemiaren ondorioei

Adierazle ekonomikoek orokorrean behera egin duten testuinguruan, azkenaldiko bilakaerak agerian jarri du mikroenpresak (1-9 enplegu) direla, termino erlatiboetan, enpleguan eta establezimendu-kopuruan hain bilakaera negatiboa izan ez dutenak enpresa txikiekin (10-49 enplegu) edo ertainekin eta handiekin (50 enplegutik gora) alderatuta.

Mikroenpresen barruan, 1-4 langile dituen geruzak 57 establezimendu eta 275 enplegu bakarrik galdu ditu, hau da, % 0,6 eta % 1,4, hurrenez hurren. Antzeko zifrak ditu mikroenpresen hurrengo geruzak, 5-9 langileko enpresenak: establezimenduen % 1 eta enpleguaren % 0,8 galdu ditu. Azkenik, galerak handiagoak izan dira 10-49 langileko enpresetan, enpresarik handien galerara irisi gabe: enpleguaren % 7,2 eta establezimenduen % 8,1.


Enpresa ertain eta handietako adierazleek bilakaera negatiboagoa jartzen dute agerian; izan ere, azken urtean 2019an zeuden 53 establezimendutatik 34ra jaitsi dira, eta hori % 36 gutxiago da, eta bi data horien artean enpleguaren % 16,2 galdu dute.

Negozio-zifran izandako galera antzekoa da maila guztietan, baina 1-4 langile dituzten mikroenpresetan kasu honetan ere balantzea ez da hain negatiboa izan, -% 44,6koa izan baita eta goiko geruzakoa -% 54,8koa.

Ostalaritza sektoreko establezimenduen tamainaren analisiak agerian jartzen du sektorean mikroenpresa asko (10 langile baino gutxiagokoak) daudela. Horrela, 2020an establezimendu guztien % 92,3 ziren eta fakturazio osoaren % 57,6 sortu zuten, eta langileen % 56,1 zuten.

Beste aldean, 50 langile edo gehiagoko enpresek (enpresa ertain eta handiek), establezimendu guztien % 0,3 izanik, fakturatutako guztiaren % 10,7 fakturatu zuten eta Euskadiko ostalaritzaren sektorean lanean ari ziren langileen % 15,9 zituzten.

Euskal AEko ostalaritza-sektoreko establezimendu-kopuruaren, langile okupatuen eta negozio-zifraren banaketa, enplegu-geruzaren eta jarduera-banaketaren arabera. 2020



Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62